AITA FRAI BARTOLOME SANTA TERESAREN *IDAZLAN GUZTIAK*

Euskalkiz bizkaieraren eremukoak garenok aurtengo uztailaren 4an izugarrizko pozaldia hartu genuen. Aspaldian bizkaieraz argitaratu den libururik ederrenetarikoa aurkeztu ziguten Bizkaiko Aldundiaren Jauregiko ekitaldi aretoan bildu ginenoi. Harri eta zurtuta geratu ginen halako liburu mardula eskuartean ikustean.

Oihartzun izugarria izan zuen, bestalde, komunikabideetan, guztiek aho batez txalotu zituztela liburu hori argitaratzen parte hartu duten erakundeak eta, bereziki, liburu eder hori prestatzen aritutako Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldar ikerlariak.

Benetan merezi izan du erakunde ezberdinen artean burutu izan den lan erraldoi horrek. Gutxitan argitaratzen da, gaur egun, halako liburu mardulik. Argi dago Frai Bartolome Santa Teresaren idazlanen argitalpen kritiko horretan prestatzaileek arazo handiak gainditu dituztela, ez baita liburu hori ahuntzaren gauerdiko eztula. Edizio kritiko hori sakontasun handiz eta aparteko arduraz burututa ageri zaigu.

Lehen eta behin, beraz, zorionak eman nahi dizkiet argitalpena gauzatzeko lanetan parte hartu duten erakundeei, hots, *Karmel Sorta* euskal bildumako arduradunei, Euskaltzaindiari,

Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza egileak alde banatan, eta erdian, Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina, Ana Madariaga Kultura diputatua eta Jon Mancisidor BBK-ko Komunikazio zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundian bildumaren aurkezpena egin baino arintxoago.

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bilbao Bizkaia Kutxari. Merezi izan du lankidetzan burutu duzuen lan honek. Mila ezker bizkaieraren eremukoak garen guztion eta Euskal Herri osoaren izenean.

Karmel aldizkari hau etxean jasotzen dugunok nahiz liburutegietan irakurtzen, bagenekien aspalditik lan hau prestatzen ari zirela, batez ere *Karmel*ek 1999ko 1. alea ia osorik Frai Bartolome Santa Teresari eskaini zionetik. Aurtengo lehen bi aleetan Luis Baraiazarrak eskainitako lan monografikoei esker laster izango genuela esku artean ere susmatzen genuen. Noiz argitaratuko zain izan gara, bada, are gehiago bizkaieraren gainean hainbat ikerlan egiten ari garen une honetan. Ez genuen uste, hala ere, horrelako liburu mardul ederra izango zenik. Esan bezala, zur eta lur geratu garela aitortu behar.

Liburu eder honek hainbat egarri eta gose aseko dituela uste dugu. Pozez bitsetan gaude, bada, gure ama mintzaira bizkaiera dugunok, gure euskalkiak aspalditik, batez ere azken aldi hauetan, zor zitzaion estimua edo "tornua" berreskuratu duelako. Beste euskalkietakoak ere gurea sakonagotik ezagutzera erakarriko dituela uste dut.

Aldizkari honetan liburu honen aurkezpena egiterakoan, alabaina, ez nuke nahi adarretatik itsu-itsuan jarduterik edota tximeleta hegalari aseezinaren antzera hegazka lorerik lore jauzika ibiltzerik. Begirune handiegia sortu dit barnean, hitz antzuetan azaletik jardunean aritzeko. Hori dela eta, liburuaren aurre-historiatzat jo ditzakegun saio ezberdinei eta prestatzaileei buruzko datu batzuk gogora ekarri ondoren, aurkezpen ekitaldian prestatzaileek esandako nahiz liburuan bertan ageri diren zerik garrantzitsuenak bilduko dizkizuet.

1. Aurre-historia

Esku artean dugun liburu hau ez da gauetik goizera sortutako amets gozo baten emaitza. Frai Bartolome Santa Teresaren idazlan batzuk aspalditik izan dira erakargarri hainbat euskaltzale ikertzailerentzat. Egin-eginean ere, gure euskararen historian oso gutxi ditugu mende hau baino lehenago halako lan handia burutu dutenak. Frai Bartolome Santa Teresak, urte askotan isil antzean izanda gero, oihartzun handia hartu izan du azken hiru hamarkada hauetan. Ondo merezia izan du, gainera, eskaini zain arreta hori.

1.1. Argitalpenak:

Frai Bartolome Santa Teresaren idazlan guztiak batera lehen aldiz aurten argitaratu baldin badira ere, gehientsuenak aspalditik ezagunak genituen. Hala ere, bagenuen hutsunerik, argitalpen gehienak antzinakoak izatean esku artean erabili ahal izateko, liburutegietara joan behar izaten genuelako, ez baitzen erraza halako lanik lortzea.

Idazlan guztien artean, bat izan dugu bereziki ezagutua Euskal Herriko ohiturak bizi-bizi deskribatzen dituelako, hainbat aldiz argitaratua izan delarik. Egin-eginean ere *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...* deitua. Lehen aldiz 1816an argitaratu zen Iruñean 209 orrialdeko liburu hau, eta geroago beste hiru argitaraldi izan ditu. Geroago aipatuko ditugun euskarako gainerako idazlanak erlijio-gaiak izatean mugatuagoa izan dute irakurleen eremua, Kalahorrako apezpikuak apaizei erabiltzeko gomendatu zien arren.

Oraingo honetan idazlan guztiak eskaintzen zaizkigu liburuki bakar batean. Hala ere, prestatzaileek aitortzen digutenez ez dituzte argitaratu bere gauza pertsonalak ez diren lanak, esaterako Etxebarriko udaleko aktak, bera nobizioen maisu zenean idatzitako Ordenako abitu-hartze eta profesa aktak, kontu-liburu, mezetako liburu eta abarretako hainbat eta hainbat orrialde...

1.2. Zenbait ikertzailek aipatua

Frai Bartolome Santa Teresaren lanen argitalpenen berri emateak berez eskatzen du idazle honetaz arduratu direnak ere aipatzea. Hainbat izan dira euskararen historian zehar idazle hau aipatu izan dutenak, lanik ugarienak azken hiru hamarkadatan argitaratu badira ere.

1.2.1. Lehen aipamenak. Horrela, lehenengo arduratu zena Edward Spencer Dodgson izan genuen, 1904an (1914) *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* argitaratu zuela. Geroago, Silverio Santa Teresak bere *Historia del Carmen Descalzo* (1944) bilduman lau orrialde eskaini zizkion. 1956an Joan Jose Sortzez Garbiarenak, *El Desierto* liburuan aipatzen du Sestaoko Basamortuan priore izan zelako.

1.2.2. Euskal literaturan. Asko edo gutxi, eskaintzen dizkiote lerroak zein orrialdeak euskal literaturaren aztertzaileek. Horrela, Luis Mitxelenak 1960an; Luis Villasantek 1961ean; Karmelo Etxenagusiak 1969an; Mikel Zaratek 1970an; Idoia

Estornesek 1973an, Santi Onaindiak 1980an, eta elkarlanean eginiko lanetan 1980koan (K. Etxenagusia - J. Kortazar - a. Etxebarria) edota 1986koan (A. Etxebarria - J. Etxebarria - J.A. Etxebarria - M.I Goiria - J.M. Kortazar).

1.2.3. Karmeldarren artean. Hainbat lan idatzi dugu Euskal Herriko karmeldarrok idazle ospetsu honi buruz. Santi Onaindiak *Euskal Literaturan* eskaintzen dizkion lerroez gainera, Lino Akesolok oinarrizkoak diran lau lan ditu *Karmel* eta *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkarietan. Gainerako lan gehienak *Karmel* aldizkarian argitaratu izan dira: Lon Arteagak lau idazlan, Luis Baraiazarrak hamabi, Julen Urkizak zazpi, eta Patxi Uribarrenek bi. Bizitzari buruzko datuak Julen Urkizak jasotzen ditu *Karmeldarrak Markinan* liburuan.

1.2.4. Beste zenbait ikertzaileren artean: Beste zenbaitek ere idazlanak eskaini dizkiote Frai Bartolome Santa Teresari azken hiru hamarkada hauetan: Patxi Altunak lan bat (*Euskara,* 1981); Xabier Altzibarrek lan bi, bata *Bizkaierazko idazle klasikoak* liburuan (1992, 259-285 or.) eta bestea *Karmel* aldizkarian (1999-1); Adolfo Arejitak lan bat (*Karmel,* 1999-1); Donato Arrinda Albizuk hiru lan *Lazkao* aldizkarian; Irune Ibarrak lan bat (*Karmel,*1999-1); A. Irigoiyenek bi lan *De Re Philologica Linguae Vasconicae* sortan (1987); Patxi Juaristik bi lan (*Karmel,* 1999-1); J.A. Lakarrak eta B. Urgelek lan bat *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* deituan (1988); Anjel Loberak bi lan (*Karmel*-1999); L.M. Mujikak lan bat (*Anuario del Seminario Julio de Urquijo,* 1983); Santi Onaindiak lan bat (*Eusko-Gogoa,* 1955); Jose Maria Rementeria Ibarluceak bi lan; bata txostena (argitaratu gabea) eta bestea *Karmel* aldizkarian (1999); Andres Urrutiak bi lan (*Karmel,* 1998, 1999); Agustin Zubikaraik lan bat (*Karmel,* 1988).

Ikusten denez hainbat idazleri gertatu zaie erakargarri idazle bizkaitar honen lana; bereziki *Karmel* aldizkariaren inguruan dihardutenei. Euskararentzat altxor handitzat jo izan dute, herriko euskararen isla paregabea eskaintzen duelako.

2. Liburuaren edukia:

Izenak berak dioen bezala, liburu honetan Frai Bartolome Santa Teresaren idazlan guztiak biltzen dira. Hala ere, ez da ahaztu behar 1580 orrialdeko liburu hau edizio kritikoa dela. Horrek idazlanek historiaren harian jasan izan dituzten gorabeherak eta egilea bizi izan zen gizarteari buruzko berriak eskatzen ditu. Hori dela eta jasotzen dira, testuak aztertzeaz gainera, hainbat eta hainbat berri liburu mardul honetako testuen egileari buruz. Beraz liburuko edukiari buruzko handi-handizkako ikuspegia eskaintzeko aurkibidean ageri diren atal nagusiak eta dagokien orrialde kopurua jasotzen ditut jarraian:

• **AURKEZPENA** (25-27 or.)

• **SARRERA OROKORRA**: (32-391 or.)

-BIZITZA (32-129 or.)

-EUSKARAZKO IDAZLANAK - SERMOIGINTZA. ITURRIAK (131-170 or.)

-Argitaratutako idazlanak (131-159 or.)

-Iturriak (159-170 or.

-ERDARAZKO IDAZLANAK (171-189 or.)

-FRAI BARTOLOMEREN EUSKARA (191-359 or.)

-Grafia (192-215 or.)

-Fonetika (215-244 or.)

-Morfologia (244-294 or.)

-Sintaxia (294-310 or.)

-Lexikoaren inguruko zenbait zehaztasun (310-345 or.

-Haren estiloaz zenbait iruzkin (345-359 or.)

-BIBLIOGRAFIA (361-378 or.)

-KRONOLOGIA: BIZITZA - IDAZLANAK - GARAIA (379-389 or.)

-ARGITALPEN HONETAZ. (391-404 or.)

• **TESTUAK**

EUSKARAZKO TESTUAK:

-*Euscal-errijetako olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* (407-493 or.)

-*Jangoicuaren legueco lelengo bost aguinduben ogueta bost lecinoe ta sermoe bat* (497-695 or.)

-*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac* (699-900 or.)

-*Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac* (903-1111 or.)

-*Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac* (1115-1377 or.)

|-SERMOIAC (1381-1393 or.)

ERDARAZKO TESTUAK

-*Apuntaciones de lo ocurrido en el convento de los Carmelitas Descalzos de la villa de Marquina desde el año 1803 hasta el de 1815* (1395-1413 or.)

-*Plauto Bascongado o el Bascuence de Plauto en su comedia Poenulo. Acto 5°, escena 1°.* (1415-1450 or.)

-*Anti-Plauto políglото o defensa de Plauto Bascongado* (1455-1467 or.)

-GUTUNAK ETA OROIT-IDAZKIAK. Testuak eta aipamenak (1469-1508 or.)

-GEHIGARRIAK (1509-1556 or.)

3. Liburuaren prestatzaileak

Honelako lan erraldoiak burutu ahal izateko egileak pertsona adoretsuak eta, era berean, trebeak izan behar. Gehiago oraindik, doktoretzako tesia edo honelakoren bat izan gabe, kultur zaletasun hutsez egiten denean. Hala gertatu da kasu honetan ere.

Gorago esan bezala, aspalditik genuen karmeldarrok sermoilari eta idazle handi honen lanak argitaratzeko gogoa. *Karmel Sorta* abiabidean jarri zenean areagotu egin zen gogo hori. Sorta horretan bilduta ikusi nahi genituen Frai Bartolome Santa Teresaren idazlan guztiak. Horrela, gainera, Aita Lino Akesolok aspalditik buruan zerabilen amets gozoa egia bihurtuko zen.

Gero, hura asmoak bete gabe hil zenean, haren laguntzarik gabe ekin zioten lan astun horri lankidetza estuan, Markinako karmeldarren etxean elkarrekin bizi diren Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra ikertzaile euskaltzaleek. Lehenago ikusi izan dugunez, aurretik ere hainbat lan zituzten eginak Frai Bartolome Santa Teresari buruz. Lehendik landutakoaz gainera, bada, bi urte luzeko lan gogor eta astunaren emaitza izan dugu *Karmel*

Sorta-12 liburuki hau. Lankidetzan jardun badute ere, nork bere lanari ekin dio, bakoitzak duen gaitasunaren arabera. Horrela

3.1. Julen Urkiza izan da liburu honetako ikerketa historikoa burutu duena. Oraingoan ere argi bete izan du Luis Baraiazarrak *Euskal Bertso eta olerkien bibliografia* liburuaren berri ematean dioskun honako hau: "*Julen Urkizaren, Karmel aldizkari honen zuzendariaren, lan harrigarria. Badu kemen eta gaitasunik... Biblioteka eta artxiboetan sarturik ekin eta ekin aritzen direnei "liburutegietako sagutxoak" deritze, baina oraingoan, udaberria izaki, erleak eta inurriak datozkit gogora*" (Karmel, 2000-2). Beste hainbeste esan dezakegu honako liburu honetarako egindako ikerketa-lanari buruz ere.

Egin-eginean ere, Julenek aparteko dohainak erakutsi izan ditu liburutegi eta artxiboetan berriak usnatu eta aurkitzeko. Berari zor dizkiogu, bada, Frai Bartolome Santa Teresaren bizitzako hainbat berri ezezagun biltzea. Era berean, berak bildu ditu horhemenka sakabanaturik zeuden testuak, eskuizkribuak aztertu ondoren, haien arteko aldeak erkatu eta aurkeztu ahal izateko.

Berak egin du, bilketa lan horretaz gainera, liburuko erreferentzien eta aipamenen prestaketa, horretarako aurkibide biblikoa eginez eta Eliz guraso Santuen aipamenak bilduz. Berari zor diogu, liburuko ohar historikoen prestaketa eta inprimategiko lan neketsua ere.

3.2. Luis Baraiazarra izan dugu, liburu hau egiten buru-belarri, maisutasunez jardunean aritu den bestea. Aspaldi dugu ezaguna euskal letren munduan, lumari olerkiz nahiz hitz lauez dantzan eragiten ongi dakiena dela erakutsi duelarik sarri. Berari zor diogu liburu honetako sarrera luzean (400 orrialde inguru) eta oharretan ageri zaigun euskara batu dotore, zehatza. Pertsona aproposa Julen Urkizak bildutako datu historiko ugariak euskararen errotan eho ondoren laba goritan ogi eder jangarri eginda eskaintzeko. Bera izan dugu, bada, kontaketa historikoan eta milaka oharretan ageri zaigun euskara txukunaren idazle.

Era berean, aurrekoaz gainera, euskararen ikuspuntutik garrantzirik handienekoa den azterketa linguistikoa, orri barreneko ohar linguistikoak eta testu orijinalaren behin-betiko finkatzea ere berak eginak ditugu. Oraingoan gailurra jo duela esan dezakegu. Ikerketa-bide berriak ireki dituela uste dut. Atzetik datozen gazteek izango dute nora begiratu ikerlan sakonak egiten ikasteko. Eskerrik beroenak biei.

Karmeldar euskaltzale prestatzaile bi hauei buruz egin dudan aipamena biribiltzeko Andre Urrutia euskaltzainak liburuko aurkezpenean dakartzan hitzak jaso nahi ditut:

> *"Irakusgarria, berebat, liburu honetan burutu den Frai Bartolomeren argitalpena. Kritikarik gabeko laudorioak, maizsarri, itxurakeria hutsak izan ohi dira. Argitalpen horretan, ordea, laudorioak ez dira besterik txukun-txukun ondutako lanaren goralpenak baino. Lan hori paratu dutenak gora ditzagun, Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldarrak. Aurretiaz ezagutu ditugu euren jakite eta trebezia ugariak. Jakin bagenekien aukerakoenak zirela lan horri ekiteko. Erruz erakutsi dituzte euren dohaiak liburu honekin eta, bide batez, mesede galanta egin digute euskaldunoi eta Frai Bartolomeri berari ere, berriro haren lanak argitan eta gure eskuetan jarriz"* (27 orr.)

4. Zerbait Frai Bartolomeri buruz

Azken lerro hauek liburuko protagonista nagusi den Frai Bartolome Santa Teresari eskaini nahi dizkiot, *Karmel* aldizkariaren irakurle zaretenok idazle ospetsu honi buruzko berri batzuk izan ditzazuen. Horretarako liburuaren aurkezpenean prestatzaileek, Julen Urkizak eta Luis Baraiazarrak, esandako lerroalde batzuk jasotzeari deritzot egokien. Hona hemen, batak zein besteak esandako atal nagusiak:

> *NORTASUNA ETA GARRANTZIA*
>
> *Frai Bartolome Santa Teresa (1766-1835), Markinako merindadekoa dugu; Etxebarriko udalerrikoa zen baserri batean jaioa; haurtzaroan Xemeingoa zen beste baserri batean bizi izan zen, baina Markinako lurretan, hau da, Iturreta auzoan.*

Dohain handiz jantzia izan zen. Euskal idazle klasiko bihurturik dugun gizon honek bere nortasun aparta alde sozio-erlijiosoan eta kulturalean agertu zuen batez ere.

Euskal idazle klasiko hau zailtasunez beteriko egoera sozio-politiko eta erlijiosoan bizi izan zen. Halako egoerari zegokionez, izaera adoretsua eta buru argia erakutsi zituen beti ere. Markinako karmeldarren komentuaz jabetu zen berriro, Frantsestean, fraideak lau urtez (1809-1813) komentuetatik egotzirik egon ondoren. Geroago, 1822an, konstituzioaren izenean "liberalak" eskubide politiko eta erlijiosoak murrizten dituztenean, Frai Bartolomek Isla-ko (Sestao) karmeldarren komentua salbatuko du, karlisten altxamendua eragotziz eta konstituzioaren aldeko bere merituak Bilboko agintearen aurrean agertuz...

Idazle izatea, predikari izatearen ondorio izango da barengan. Predikari bikaina zen. Ezin agortuzko iturri ugaria agertzen du bere hitzaldietan, baina era berean ugarian galtzen ez dena dugu. Izan ere, argitasuna eta indarra dira haren dohain nagusietarikoak. Bere dohain horiek euskaldunen artean ohitura onak irakasten eta apostolu-lanean erabili zituen. Hauxe adierazten du Kalahorrako apezpikuak haren liburuetako "icasiquizunac" kristauei elizan irakurtzeko agindua apaizei eman izanak.

Frai Bartolomek lau liburu argitaratu zituen euskaraz eta beste bi zituen gutxienez argitaratzeko prest, zorigaitzez galduak direnak. Argitalpen honetan, lau liburu horiez gain, lehenengoz argitaratzen dugu eskuizkribu bat, 1816an argitaratu zuenaren (Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac) aurreko idazketa eta bertsio guztiz desberdina dena.

Frai Bartolomek estilo bere-berea du. Bizkaieraren hizkuntz egiturak, ziur aski J.A. Mogelen zuzendaritzapean nagusituz ziboazenak, leialki betetzen ditu, baina betiere bere-bereak zituen estiloa eta idazkera agerian utziz.

ORAINGO BIZKAIERARAKO DUEN GARRANTZIA

Gure idazle klasikoengana hurreratzean, J.A. Mogelen Peru Abarka eta beste kasu gitxi batzuetan izan ezik, gai erlijiosoa

darabilela ohartzen gara. Hareek Euskal Herriko apostoluak ziran beste ezer baino leben. Idazle izatea horren ondorioa baino ez da hareengan. Frai Bartolomek oso gogoan hartzen dau bere eginkizun hori.

Beraz, oraingo euskaldunak zer aurkituko dabe bizkaierazko klasiko honen idazlanetan? Moral katolikoaren azalpena edo gaur egun helduen katekesia deritxona. Baina oraingo euskaldunak beste zerbaiten bila doaz gure idazle klasikoengana, eta hori hareen hizkuntzaren ur garbia da.

Euskara batua bere bidean jarria izanik, Bizkaiko euskaltzale asko bizkaierara bihurtu dira, bidezko danez. Baina ez euskara batua arbuiatuaz, biak bata-bestearen osagarri eginaz baino. Bizkaiera jaso eta batua eregi nahi geunke. Horretarako behar-beharrezkoa dogu sustraietara jotzea; sustraiak gure klasikoak dira. Hemen dogu bizkaierazko klasiko onenetarikoa. Euskaraz idaztean nahiko erraz dabilela dirudi. Berak be halan dino irakurleei zuzenduriko sarrerako atalean. Euskarari jagokanez, gehienak ondo ulertzeko eran idazten daualakoan dago. Bere herriko euskera darabil, berak dakiena, barrutik dariona. Dana dala, erlijio-gaietako euskara, kutsatua eta nahiko mordoiloa dala dinosku. Elizgizonen itxikeriaz euskalgaiztoak jota ei dago arlo hau. Bestetan ez, baina arlo honetan, berba mordoiloen bitartez izan ezik ez ei dau herriak ulertzen dotrinea. Horren bildurrarren, ezinbestean sartu dituala dinosku, gogoz kontra sartu be, hainbat berba arrotz. Lexikoa, beraz, ez darabil berak gurako leukean baizen garbia, erlijinoko gaietan, dotrinea bera ondo jasotzea euskara onaren gainetik jartzen daualako.

Garai haretan bizkaiera literarioa gauzatuaz eta arautuaz joian, adituak uste dabenez, J.A. Mogelen gidaritzapean. Hizkuntzaren oinarrizko egitura askotan bat etozen Bizkaiko mendebaldekoak eta ekialdekoak; esaterako, Añibarro, Mogel, Frai Bartolome, Astarloa. Hainbat xehetasunetan, ostera, bada alderik: Markinaldekoentzat, bokalen harmonia bete beharreko arau zorrotza zan. Añibarrorentzat, ez. Hareek bokal bikotxak (bokal bitubak) egiteko joera handia dabe; Añibarrok-eta ez hainbestekoa. ***F / P*** *kontsonanteen erabileran be ez datoz bat. Mogelek eta Añibarrok eztabaida bizia izan eben auzi honetan.*

Frai Bartolomek ez dau sekula erabiltzen "f"rik eta horretaz kontuak eskatu eutsezanean, jakitunen lekukotasuna dakar bere alde... Adizkiak erabiltzean, tradizioan ondo oinarrituak diranak erabiliko ditu beti, eta horretan bat datoz Bizkaiko mendebaldekoak nahiz ekialdekoak. Gure klasikoengan ez dogu egundo era honetako formarik aurkitzen: dauz / dabez; ebazan / ebezan. Beti forma honeek: ditu / ditue; zituan / zituen... Nork-Nori-Zer saileko aditz laguntzailea orainaldian, beti da ***deu-*** *eta ez* ***dau-****; hau ez da Frai Bartolomerena bakarrik. J.A. Mogel, Añibarro, Astarloa eta bizkaierazko idazle zahar onenak halan egiten dabe beti.*

Oso luze joko leuke aurkezpen honek, Frai Bartolomeren hizkuntzako berezitasunetan sartuko bagina. Argitalpen honetako sarrera orokorrean nahiko sakon aztertzen da haren hizkuntza bere arlo desbardinetan: grafia, fonetika, morfologia, sintaxia, lexikoa eta estiloa. Hau guztiau harrobi aberatsa da bizkaiera batu, jantzi eta moderno bat eregiteko.

5. Frai Bartolomeren estiloa

Pertsona bakoitzaren nortasuna barneko sentimenduak eta gogoetak kanporatzeko duen trebeziak agertzen digu hainbatean. Barneko izaera islatzen da gehienetan, guk gura edo gura ez, gure hitz egiteko edota komunikatzeko eretan. Literatura barruan horri estiloa deritzagu. Frai Bartolome Santa Teresaren idazlanetan ere nabardura bereziak ageri zaizkigu. Honela laburbiltzen du lerro gutxitan Luis Baraiazarrak liburuaren sarreran, Frai Bartolomeren estiloa, adierazteko hainbat adibide eskaini ondoren:

"Uholde baten antzera da haren ekarria: izenlagunak, adizlagunak, aditzak, izenak... borborka darizkio. Baina ez da ugarian nahasten eta galtzen den testua. Bere etorri handi hori ongi bideratzen daki, osagai bakoitza bere testuinguruan egoki sartzen eta esaldiei toles bizi-bizia ematen. Horretan maisu dugu Frai Bartolome. Haren lanak irakurriz, kapitulu bakoitza tesi antzera goitik behera arrazoitsu eta ongi moldatua dagoela ohartzen gara. Idazle honetaz hitz egiterakoan, indarra da beti

aipatzen dena. Izan ere, hori bere-berea du. Txukuntasunean edo nahi bada, dotoretasunean bai, baina horretan ez dio inork hurrik ematen. Gutxiago aipatzen bada ere, ezin azpimarratu gabe utzi haren testuen beste ezaugarri bat: argitasuna. Helburu didaktikoa beti gogoan zerabilela dirudi. Horregatik, molde zaharreko forma batzuk erabili arren, gurpil ona ematen daki esaldiei eta haria galtzera nekez eramango du irakurlea. Puntuazio-markak oraingo usadiora egokituz gero, haren testua indartsua ez ezik, garbia ere bada. Sintaxia ere lagungarri da horretarako, eta behin eta berrio esana dugunez, bere garaiko gainerakoak baino joskera berezkoago eta naturalagoa darabil. Joskera euskaldunagoa duela esaten, agian, ez ginateke ausartuko, baina latinaren eta erdaren moldeetara hain lerratua ez dena duela esaten bai..." (359. or.)

6.- Adibide bat

Azkenik baso bete ur fresko baino ez bada ere, Frai Bartolome Santa Teresaren idazlanetako iturri gardenetik hartutako edangarri gozo hau eskaintzen dizuet, zuen egarria asetzen ez badut ere, gutxienez gozatzeko:

"Seme alavaac esquer chaarrecuac, gogorrac ta lotsa galducuac dauqueezalaco dira guraso zaarreen atsecaba ta pena guztiac. Examinau daigun, bada, orain, ia nundi edo celan gogortu, lotsagalducotu ta gaistotu dirian seme alaba orreec.¡Oh, guraso zaar, ume gaistuac gaiti negar mingoch eguiten dozun, tristiac! ¿Noc galdu ete ditu alan ceubeen erraijeetaco seme alavaac? ¿Galdu ete ditu Jaungoicuac? Ez. Jaungoicuac, onac, zintzuac, humildiac, lotsa onecuac ta santubac emon eutsuzan ceubeen umiac, batiatu zirianian. Eguzquija baino arguijago, lirijuac baino ederrago, luurra baino humildiago, guztiz onduta, aingueruturta bautismoti echera eruan cenduzan ceubeen umiac. Ta bautismuan artu ebeen ontasunagaz, edertasunagaz, humildadiagaz, caridadiagaz ta vijotceco viguntasunagaz gorde deutsuz Jaungoicuac sei zazpi urtera artian, errazoiaren usura eldu artian. Ta andi aurrera bere seguru gagoz, Jaungoicuac galdu ez ditubana.

¿Mundubac galdu ete ditu ceubeen seme alaba gaisto orreec? Ez. ¿Diabrubac lotsa galducotu ete ditu? Ez. ¿Aragui deunguiac ecarri ete ditu, guraso zaarreentzat esquer chaarrecuac, gogorrac ta lotsa gaistocuac izatera? Ez. Bada, Munduba, diabruba ta araguija bardinac dira ceubeen seme alaveentzat ta bestientzat. Ta orregaitino guraso edadeco asco dagoz, seme alava humildiac, Jaungoicozcuac, zintzuac, maitiac ta estimaubac dauqueezanac. Eureen zaartzaan laguntasuna, poza ta atseguina emoten deutseenac. Inos, eurac esan oi daveen leguez, buruco min bat, ez naibague bat emon ez deutseenac. Jaungoicuaren bildur santuban ta cristinau eguijazco baten moduban eureen guraso zaarrai osasunian ta gaisuan, arimaan ta gorputzian lagunduten deutseenac. Auzuac ta errijac embidija deutseen ume onac. Asco dagoz onetarico seme alavaac. Onaco seme alava bedeincatubac ta estimaubac euqui davee, ceubeen seme alava Jaungoicuaren bildur bagacuac ta vijotz gogorrecuac euqui daveen erico munduba, diabruba ta araguija. Begaz, ez deutseegu onei ezarri biar, zubeen seme alavaac galduteco erruba.

¿Lotsagalducotu edo deungatu ete dira eurac eureen artian ta eureen bacarrian? Ori bere ez, cristinaubac. Eurecauten ez dira semiac deungatuten. Bacarrian bere ez. Berecauten ta bacarrian deungatutecua ta gaistotutecua inor izan balitz, Moise santuba, David erreguia, Elias propeta andija, san Juan Bautista, Madalena, san Anton abata, san Paulo, lelengo ermitainua ta santa Maria Egiciaca izango zirian gaistuenac ta deungueenac. Bada, eurac dira bacarrian gueijeen azi ta munducuen parteti eureenez luzaruen vitzi izan dirianac. Gurasuac, begaz ez dira zubeen seme alavaac bere eureenez ta bacarrian gaistotu ta lotsagalducotu".(890.or.).

Patxi Uribarren Leturiaga